

MUk diplomak banatu zizkien Automobil Lehiaketako Espezializazio Teknikoaren Masterraren IV. promozioko ikasleei

2009/03/12

Mondragon Unibertsitateak METCA Automobil Lehiaketako Espezializazio Teknikoaren Masterraren IV. promozioko 20 ikasleei diplomak eman zizkien, ostiralean. Diplomak emateko ekitaldia Epsilonen Azkoitian duen Errendimendu Handiko Zentroan izan zen, eta bertan Mondragon Unibertsitateko errektore losu Zabalak eta Epsilon Euskadiko presidente Joan Villadelprat-ek hartu zuten parte.

Masterra ezaugarri horiek dituen bakarra da European eta erreferente bihurtu da, urtero automobil-lehiaketan espezializatu nahi duten hogeit bat ingeniari trebatzeko helburua baitu. Ikastaroa Epsilon Euskadik Azkoitian duen Automobil Teknologiko Errendimendu Handiko Zentroan ematen dute Mondragon Unibertsitateko irakasleek eta lehiaketako nazioarteko profesionalak. Masterrak osagai praktikoko garrantzitsua du, ikasleek lehiaketetan zirkuituetara joateko aukera baitute.

METCAren helburua ikasleei diziplina anitzeko prestakuntza ematea da, aerodinamikan, ibilgailuaren dinamikan, motorren propulsioko multzoan, programazioan, lehiaketa-taldearen kudeaketan eta beste eremu batzuetan gaitasun handia beregana dezaten. Behin ikastaroa bukatuta, ikasleak lehiaketa-talde batean edo automobilgintzako industrian jarduteko besteko ezagutza teoriko eta praktikoen jabe izango dira. Helburu horrekin, ibilgailua osatzen duten modulu nagusien funtzioen eta oinarriko elementuen gaineko ezagutza osoa eskaintzen die masterrak.

Ikastaroa ingeniarietako titulatuentzat, automobilgintzaren teknologia elektronikoa eta mekanikoko ikertzaile espezializatuentzat eta sektoreko profesionalentzat antolatuta dago.

Diplomak banatzeko ekitaldiaren ostean, Le Mansen lehiatuko den ibilgailuaren prototipoa erakutsi zuten Epsiloneko teknikariek. Diseinuaren alorreko azken aurrerapenak, martxa-kutxa berezia eta titaniozko eta zeramikazko osagaiak ditu ibilgailuak, ahalik eta fidagarritasunik handiena eta pisurik txikiena izan ditzan.

